

2020KO ZAWP NAZIOARTEKO EGONALDIEN PROGRAMA

ZAWP (Zorrotzaurre Art Work in Progress)
proiektuaren hastapenetan oinarrituta:

SORKUNTZA+ BIZIBERRITZEA+ MEMORIA+ MIKROPROTOTIPATUA

NORI ZUZENDUTA

Kudeaketa, ekoizpen eta dinamizazio kulturalaz arduratzen diren pertsonentzat. Ikertzaile, artista, musikari, antzezle profesional edo amateur, ikasle, natura edota giza-zientzialarientzat. Hau da, ekoizpena eta ikerketa helburu duten sortzaileentzat, kultura, artea, gizartea, ekonomia edo jakintzaren eremua aurrera pauso txiki bat eman nahi dutenentzat.

DISZIPLINAK

Arkitektura, hirigintza, hiri-interbentzioa, ekonomia berriak, kudeaketa kulturala, memoria historikoa, teknologia berriak, transmedia lengoaiak, arte interaktiboa, komunikabide berriak, arte eszenikoak, hezkuntza eta iraunkortasuna, izateke diren disziplinetan arreta berezia jarritz.

Egonaldi autofinantzatuen kasuan, disziplinak ez daude mugatuak.

 **IRAUPENA**

Astebete eta lau hilabete bitartekoa. Betiere 2021eko ekainaren 30 baino lehen bukatu beharko da.

 **NON**

ZAWP ekosistemaren baitan, Deustuko Erribera eta Zorrotzaurre auzoan (Bilbo). Egonaldiko proiektuaren beharren arabera ZAWPen espazio ezberdinak erabili ahal izango dira:

- La Nave Va
- La Terminal
- La Calde
- Bulegoa (Haceria Arteak)

 **EGONALDI MOTAK****A) EGONALDI AUTOFINANTZIATUAK**

ZAWPen helburu nagusiekin bat egin ez arren, ikerketa eta ekoizpen artistiko, kultural edo zientifikoaren eremuan aberasgarri eta interesgarri diren proposamenak.

ERAKUNDEAREN EKARPENA

- Zabaltze eta komunikazioan laguntza,
- deskontu bereziak lan-espazioetan.

EGONALDIAN DAGOEN PERTSONAREN EKARPENA

- Lan-espazioaren gastuak: GARABIA eta HACERIA (deskontuak barne); ZAWPLab eta Bulegoa (Prezio orokorrak),
- ostatuaren gastuak (beharrezkoa balitz),
- bidaia, dieta eta mediku-asegurua, izanez gero.

B) LAGUNDUTAKO IKERKETA ETA EKOIZPENERAKO EGONALDIAK

ZAWP mugimenduaren lan-ildoren batekin bat egiten duten ideia edo proiektuei beka emango zaie: hiriaren eraldaketarako sorkuntza, memoria historikoa, biziberritzea eta mikroprototipoen sorkuntza.

BALDINTZAK

- Proiektuaren alorrean egiazta daitekeen prestakuntza edota ibilbidea izatea.
- Titular eta deialdi bakoitzeko gehienez bi eskaera aurkeztu ahal izango dira.
- Proiektuak eredu, prototipo edo argitalpen bat sortuko du eta hori aurkezteko ekitaldi bat antolatuko da.
- Deustuko Erribera eta Zorrotzaurre beharrezko testuinguru edo inspirazio bezala erabili beharko dira.
- Proposamenek elementu eraldatzaileak izan behar dituzte eta auzo eta bizilagunei ekarpena egin.

Lehentasuna izango dute hurrengo irizpideak kontuan hartzen duten proiektuek:

- Beste ideia, lengoaia, diziplina eta proiektuekin interkonexioa bilatzea,
- truke programa batek babestea,

- errentagarritasun sozial edota ekonomikoa izatea,
- ekintzailtza bultzatu eta lana sortzen laguntzea,
- hezkuntza zehar-lerro gisa baloratzea,
- ondorio bezala emaitza-txosten edota produktu bat izatea,
- mugaz gaindiko izaera izatea.

ERAKUNDEAREN EKARPENA

- Zabaltze eta komunikazioan laguntza,
- lan-espazioa,
- Bizkaiatik kanpoko sortzaileentzako ostatua,
- aukerako zuzeneko diru-ekarpena, gehienez aurrekontu osoaren %50ekoa. Memoria entregatu arte ez da ordainketarik egingo.

EGONALDIAN DAGOEN PERTSONAREN EKARPENA

- Proiektuan aurrez aurreko dedikazioa izatea eta helburuak betetzea.

C) KUDEAKETARAKO EGONALDI PROFESIONALAK

Harrera egiten diegu haien ohiko ingurugirotik kanpo, bere gaitasunak praktikan jarri nahi dituzten pertsonei, Erasmus+ moduko programen bidez.

BALDINTZAK

ZAWPeko egonaldian garatu nahi den lanaren eremuan ziurtaturiko prestakuntza edota ibilbidea izatea.

Titular eta deialdi bakoitzeko gehienez eskaera bat aurkeztu ahal izango da.

ERAKUNDEAREN EKARPENA

- Zabaltze eta komunikazioan laguntza,

- Lan-espazioa (beharren eta proposamena onartzean hartutako erabakien arabera)
- Bizkaiatik kanpoko sortzaileentzako ostatua

EGONALDIAN DAGOEN PERTSONAREN EKARPENA

- Proiektuan aurrez aurreko dedikazioa izatea eta helburuak betetzea,
- Norberaren gastuak

ESKAERA

Eskaerak 2019ko martxoaren 30ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Aurkeztu ondorengo 3 astetan jakinaraziko da eskaera onartu edo ukatu den. **Onuradunek onarpena edo errefusapena hamar eguneko epean jakinarazi beharko dute.** Uko eginez gero, ordezkarien zerrendan lehenengoari proposatuko zaio.

Prozedura honen inguruko galderak honako posta elektronikoa honen bidez erantzungo dira: residencias@zawp.org

Deialdi honetan parte hartzeak, oinarriak eta ebazpena onartzea dakar, baita ZAWP lantaldearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik etorkizunean sor daitezkeen aldaketak ere.

Eskabidean eman beharreko informazioa:

- **DATU PERTSONALAK**

- Egonaldiko parte-hartzaile kopurua (Proposamena kolektiboa bada, kide guztien izen-abizenak adierazi eta gainerako datuetarako ordezkari bat aukeratu).
- Izen-abizenak
- NAN zenbakia
- Jaiotza-data eta lekua
- Posta-helbidea
- Harremanetarako telefonoa
- Posta elektronikoa
- Webgunea
- Sare sozialak
- Jaioterriko hizkuntza
- Azken urtean egindako ekintzen deskribapen laburra

- **PROIEKTUA**

- Proiektuaren izenburua
- Diziplina(k)
- Proiektuaren deskribapena sei lerrotan
- Proiektuaren deskribapena lerro batean
- Proiektuaren garapen-fasea (hasiera, garapena, ondorioa)
- Eskatzen den egonaldi mota
- Egonaldiaren iraupena
- Data egokienak
- Aurkezten d(ir)en proiektu(ar)en berriazko dosierra, gutxienez honako informazio honekin: deskribapena, helburuak, metodologia, faseak, ikerketa-ildoak(k), itxaropenak, proiektua garatzeko dauden interes pertsonalak, estekak (portfolioa, argitalpenak edo beharrezko dena) eta, beka eskatzen bada, ereduaren araberako aurrekontu xehatua ere aurkeztu beharko da.

- **ESPAZIO BEHARRAK**

- La Nave Va
- La Terminal
- La Calde

- **AURKEZTU BEHARREKO BESTE DOKUMENTUAK**

- NAN edo pasaportearen fotokopia
- Bekarekin lagundutako egonaldi mota eskatzen dutenek, honako hauek jasotzen dituen aurrekontua:

- **GASTUAK**

- Ostatua, beharrezkoa balitz (15 euro egunean + BEZ)
- Lan espazioa, honako tarifa hauen arabera: HACERIA eta GARABIA 30 euro egunean + BEZ
- Bidaiak
- Dietak
- Materialak
- Sortzaile(ar)en lanaren balio ekonomikoa
- Beste gastu batzuk (zehaztu zeintzuk)

- **DIRU SARRERAK**

- ZAWPi eskaturiko ekarpen ekonomikoa (ezingo du aurrekontu osoaren %50 gainditu eta justifikatu egin beharko da)
- Sortzaileak(ek) egindako ekarpen ekonomikoa
- Beste diru-sarrerak, horiek baleude

**KONTAKTUA**

residencias@zawp.org

www.zawp.org

LA NAVE VA - ZAWP

Zuloaga margolariaren kalea, 9. zbkia

Zorrotzaurre – Bilbao

48014

+0034 944 759 576